



ZESTOAKO UDALA



ERNIARRAITZ
BERTSOZALE ELKARTEA

Zestoako Udalaren eta Erniarraitz bertsozale elkartearen arteko HITZARMENA

BILDURIK:

Alde batetik, **Jose Francisco Mendizabal Irigoien**, 15909505Z zenbakiko Nortasun Agiria duena, Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakaria eta, hitzarmen hau sinatzeko, 2018ko martxoaren 1eko Tokiko Gobernu Batzordearen bilkurak ahalmendua denez,
Bestetik, **Xabier Azpillaga Labaka** jauna/andrea, 35771222N zenbakiko Nortasun Agiria duena **Erniarraitz bertsozale elkartearen** izenean,

Biek dokumentu hau emateko legezko gaitasuna elkarri onetsiz,

ADIERAZTEN DUTE

- a) Zestoako **Erralla bertso eskolak** eta **Erniarraitz bertsozale elkarteak** irabazteko asmorik gabeko elkarte dira
- b) **Erralla bertso eskola** urte askotan Zestoako haur, gazte eta helduei bertsoan trebatzea eskaintzeaz gain, bertsozaletasuna sustatzeko hainbat ekintza antolatu izan ditu herrian.
- c) **Erralla bertso eskola** Erniarraitz elkarlanean antolatu izan dituzte Zestoan bertsozaletasuna sustatzeko hainbat ekintza. Eta, 2017tik, **Erralla bertso eskola** Erniarraitz elkartera barneratu da.
- d) Lankidetzaren hitzarmen hau egiteko orduan kontuan hartu dira **Erniarraitz bertsozale elkartearen** gizarte eragina, zenbat zestoarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, izandako ibilbidea, jarraikortasuna eta egonkortasuna.
- e) **Zestoako Udalak**, lehen ere eman izan ditu diru-laguntzak, eta horrela egiten jarraitzeko asmoa du, onura handiko zerbitzua ematen baitie **Erniarraitz bertsozale elkarteak** herriari eta herritarrei.
- f) Interes publikoko eta sozialeko helburuak betetzeko ematen da diru-laguntza zuzen hau.

Hitzarmena honek, Zestoako **Erniarraitz bertsozale elkarte**a eta Udalaren arteko lankidetzaren esparrua zehaztu eta araupetzea du helburu, baldintz hauen arabera:

XEDAPENAK

1. Araudia

- o Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoa.
- o 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoa.
- o Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 8ko 4/2005 Legea (24.2 artikulua) xedatzen duenez, "euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria



ZESTOAKO UDALA



Erniarraitz
bertsozale elkarteak

eragiten duten elkarte edo erakundeei").

- Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak
- Diru-laguntza emateko unean indarrean dauden udalaren eta gainerakoen arauak.

2. Erniarraitz bertsozale elkartearen betebeharrak

- Urteko programa egitasmo aurreikuspenak aurkeztuko ditu, gastu-sarreraren aurreikuspenak barne.
- Urteko programa horrek zehaztuko ditu, gutxienez:
 1. Zestoan emango diren bertso-eskolak
 2. Zestoan egingo diren bestelako ekintzak
- Bertso eskolako ikasleek, gehienez, eskualdeko beste bertso eskoletako ikasleek ordaintzen duten matrikula-saria ordainduko dute.
- Urtea bukatutakoan, urtarrilaren 15a baino lehen, aurkeztuko ditu:
 1. Egindakoaren jarduera guztien laburpen memoria.
 2. Balantze ekonomikoa, gastuak eta diru-sarrera errealak jasoko dituenak
 3. Gastuen fakturen eta eta diru-sarreraren kopiak
- **Zestoako Udalak** egin beharreko egiaztatze jardunak onartuko ditu; baita eskuduntza duten beste kontrol organoek (estatukoak nahiz erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa ematea.

3. Zestoako Udalaren betebeharrak

- Urteko aurrekontuan zehaztu ditu **Erniarraitz bertsozale elkarteari** emango dion diru-laguntza. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 28. artikuluan ezarritakoan oinarrituz, diru-laguntza zuzenean emango da, eta hori aurrekontu-sail berezian ageriko da. **Zestoako Udalak** zenbateko hori gutxituko du gain-finantzaketa gertatzen bada. Era berean, beste erakundeek ekarpenak murrizten badira, Udalak aztertuko du diru-partida hori handitzeko aukera.
- Bertso eskolak **Zestoako Udalak** horretarako utzitako gelan emango dira.

4. Diru-laguntzaren ordaintzea

- Diru-laguntza jaso ahal izateko, **Erniarraitz bertsozale elkarteak** aurreko ekitaldiko diru-laguntza justifikatuta izan behar du.
- Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Baita elkarteak izan ditzakeen bestelako diru-sarrerekin.
- Edonola ere, ezingo da gain finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio.
- Udalak urteko diru-laguntza honela emango dio **Erniarraitz bertsozale elkarteari**: urte



ZESTOAKO UDALA



ERNIARRAITZ
BERTSOTZALE ELKARTEA

bakoitzari dagokion kopuruaren %60 urte bakoitzeko lehen hiru hilabeteetan, eta %40 jarraipen batzordeak urteko memoria onetsitakoan. Dagokion likidazioan superabita balu, gehienez, jasotako dirua itzuliko dio **Zestoako Udalari**.

5. Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmena urtetik urtera berrituko da, betiere alderdi bien artean jarraipen bilera egin eta gero. Martxoaren 30erako hitzarmen berria sinatu gabe balego, aurreko urtekoa luzatuztat emango da hurrengo urtera arte.

6. Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira aipatutako araudia.
7. Administrazioako auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajaz konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritz.
8. Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarteak jasotako diru-laguntza bueltatzera behartuta egongo da.


Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Zestoan, 2018ko martxoaren 6an.

Jose Francisco Mendizabal Irigoien
Zestoako alkatea



Xabier Azpillaga Labaka
Erniarraitz bertsozale elkarte



ERNIARRAITZ
BERTSOZALE ELKARTEA

ERNIARRATZEN 2018KO AURREKONTUA (Zestoa)

EKINTZA	GASTUAK	SARRERAK	
Umeen bertso-eskola	1.143,96 €	480,00 €	
Erniarraitz Txapelketa:		150,00 €	
Dietak	360,00 €		
Bestelako gastuak	100,00 €		
Lastur	300,00 €	90,00 €	
Eragiletza lanak (lanaldi z)	700,00 €	0,00 €	
GUZTIRA	2.603,96 €	720,00 €	1.883,96 €